Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko apirilean

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.094 eskaintza erregistratu dira 2024ko apirilean, martxoan baino 67 gehiago eta 2023ko apirilean baino 250 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2024ko apirilean 187 eskaintza erregistratu dira Araban, 426 Gipuzkoan eta 481 Bizkaian. Eskaintzen % 17,1 Arabako UAG-etan erregistratu dira, % 38,9 Gipuzkoan eta % 44 Bizkaian.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Araban, hilabete honetan, eskaintzek % 7,9 egin dute behera (16 eskaintza gutxiago); Bizkaian, aldiz, % 10,3 igo dira (45 eskaintza gehiago); eta azkenik, Gipuzkoan, eskaintzek % 9,8 egin dute gora (38 eskaintza gehiago).

Iazko hilabete beraren aldean, 3 Lurraldeetan hazi dira eskaintzak. Araban 24 eskaintza gehiago izan dira (% 14,7ko gorakada); Gipuzkoan 94tan igo dira eskaintzak (% 28,3 gehiago); eta, azkenik, Bizkaia da eskaintzak gehien hazi diren lurraldea, 132 eskaintza gehiagorekin (+% 37,8).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn erregistratutako eskaintza gehien dituen profila zerbitzuetakoa da, 244 eskaintza eta eskaintza guztien % 22,3rekin. Ondoren, zientzietako teknikarien profila dago, 201 eskaintza eta % 18,4ko pisuarekin. Laguntzako teknikarien, ez kualifikatuen eta industriako okupazio-profilek ere garrantzi handia dute erregistro-eskaintzei dagokienez, eskaintza-bolumenaren ehunekoak % 18,2, % 14,3 eta % 10,7 izan baitira, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak dira, 13 eta 11 eskaintzekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, eskaintzen beherakada handiena, bai maila absolutuan bai erlatiboan, operadoreen profilean izan da, 18 eskaintza gutxiagorekin eta % 21,4ko jaitsierarekin. Aitzitik, igoerarik handiena, balio absolutuetan, zerbitzu-eskaintzetan gertatu da, 52 eskaintza gehiagorekin (+%27,1); balio erlatiboetan, igoerarik handiena kualifikatu gabekoen eskaintzetan gertatu da, % 31,9ko hazkundea eta 38 eskaintza gehiagorekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, eskaintzak igo egin dira okupazio guztietan, industrian izan ezik, horietan 12 jaitsi baitira (% 9,3ko murrizketa). Igoerarik handiena, balio absolutuetan, zerbitzuen profilean gertatu da, 96 eskaintza gehiagorekin eta % 64,9ko hazkundearekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena lehen sektoreko eskaintzetan gertatu da, % 225 gehiagorekin (+9 eskaintza).

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako eskaintzen % 43,3 mugagabeak izan dira, eskaintzen % 55,9 aldi baterakoak, eta gainerako % 0,7 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa handia da serie historikoarekin alderatuta, iazko apiriletik hona 0,8 puntu hazi da; martxotik hona, aldiz, puntu 1 hazi da. Datu horiek indartu egiten dute lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joera. Mugagabeko eskaintzak 474 izan dira, aurreko hilean baino 40 gehiago (% 9,2ko gorakada). Aldi baterako eskaintzek ere gora egin dute (27 eskaintza gehiago), 612 izan dira guztira; balio erlatiboetan, hazkundea % 4,6koa izan da. Azkenik, merkataritzako 8 eskaintza izan da 2024ko apirilean, aurreko hileko kopuru bera.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeko 115 eskaintza gehiago egon dira (% 32ko hazkundea); aldi baterako eskaintzek ere gora egin dute; % 27,2 eta 131 eskaintza gehiago. Azkenik, merkataritzako 4 eskaintza gehiago erregistratu da urte arteko konparaketan.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2024ko apirilean erregistratutako eskaintzen % 75,3k 0 eta 6 hil arteko esperientzia behar dute, 824 eskaintza guztira. Eskaintzen % 13,5ek (148 guztira) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia-aldi luzeagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitartekoek, % 2,3ko pisuarekin (25 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago eskatzen dituztenek; 10 eskaintza eta % 0,9ko pisua.

Hileko bilakaeran, eskaintzak igo egin dira esperientzia-tarte guztietan. Balio absolutuetan, 6 eta 12 hilabete artean behar duten eskaintzen gorakada nabarmentzen da, % 33,3ko hazkundearekin eta 37 eskaintza gehiagorekin; balio erlatiboetan, 5 urtetik gorako eskaintzen igoera nabarmentzen da, % 233 hazi baitira (+7 eskaintza).

Urteko bilakaerari dagokionez ere, eskaintzek gora egin dute tarte guztietan. Nabarmentzekoa da 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-tartearen beherakada, 191 eskaintzatan igo baita (+% 30,2); balio erlatiboetan, nabarmentzekoa da 5 urtetik gorako eskaintzen igoera, % 400 hazi baitira (+8 eskaintza).

Apirilean, erregistratutako lan-eskaintzek 8 hilabeteko batez besteko esperientzia eskatu dute, martxoan bezala.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten zer lanjardunaldi egin behar den eskaintzak erregistratzeko orduan; eskaintzen % 18,8k bakarrik zehazten dute lanaldia, aurreko hilean baino 3 puntu gehiago (1.094 eskaintzatik 206k soilik). 206 eskaintza horietatik 182 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerakoak 24 lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 46 gehiago izan dira martxoarekin alderatuta, hau da, % 33,8ko igoera. Lanaldi partzialeko eskaintzek gora egin dute eskaintza batean, eta igoera erlatiboa % 4,3koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak hazi egin dira 81 eskaintzatan (% 80,2 gehiago); lanaldi partzialekoak, berriz, 2 eskaintzatan murriztu dira (-% 7,7).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 7 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 3 gutxiago eta aurreko urtean baino 3 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 78,6k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.094 eskaintzetatik 254k soilik zehaztu dute.

254 eskaintza horietatik 98k LHko ikasketak behar zituzten, eta ikasketa-maila minimo hori da gehien eskatu dena; ondoren, unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak datoz, 85 eskaintza erregistratu baitziren apirilean. Horien atzetik daude derrigorrezko ikasketen eta batxilerreko profilak, 49 eta 22 eskaintza erregistratu baitituzte, hurrenez hurren.

Hil arteko erlazioan, eskaintzak hazi egin dira profil guztietan. Igoerarik handiena, balio absolutuetan, LHko ikasketen eskaintzetan izan da, 21 eskaintza gehiagorekin eta % 27,3ko igoerarekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena derrigorrezko ikasketak behar dituzten eskaintzetan gertatu da, % 40ko hazkundea izan baitute (14 eskaintza gehiago).

2023ko apirilarekin alderatuta, ikasketa-profil guztien eskaintzek egin dute gora. Gehien hazi diren eskaintzak, balio absolutuetan, unibertsitate ikaskeketak behar dituztenak dira, 137 eskaintza gehiagorekin (% 77,1eko igoera); balio erlatiboetan, igoerarik handiena batxilergoko ikasketen eskaintzetan gertatu da, % 214,3 gehiagorekin (+15 eskaintza).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumena kontutan hartuta, merkataritzako eskaintzak dira pisu handiena dutenak; % 13,1a hain zuzen ere (143 eskaintza). Atzetik, oso gertutik datoz manufaktura industriako eskaintzak, 137 eskaintza eta hil honetako eskaintza guztien % 12,5a baitira.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, batez ere ostalaritzako eskaintzek izan duten igoera nabarmendu behar da, 47 eskaintza gehiago izan baitira (% 65,3 gehiago); horren atzetik, administrazio publikoko eskaintzen hazkundea dator, 15 eskaintza gehiagorekin (+%17,2). Aldiz, gehien murriztu diren eskaintzak informazio- eta komunikazio profilekoak (-12 eskaintza, % 38,7 gutxiago) eta eraikuntzakoak dira (10 eskaintza gutxiago, -% 13,2).

Urte arteko saldoari dagokionez, eskaintzak jarduera gehienetan hazi dira. Zenbaki absolutuetan ostalaritzan izandako igoera nabarmentzen da, 40 eskaintza gehiagorekin (% 50,6ko hazkundea), eta ondoren merkataritzan izandakoa (+38 eskaintza, +% 36,2). Aitzitik, beherakadarik handiena, ur-horniketan izan da, 3 eskaintza gutxiago eta % 50eko beherakadarekin.